



Kristalezko begi bat **Miren Agur Meabe**

Liburua, neurri batean, eta liburuaren atal batean egileak berak aditzera ematen duenez, dibagaziotzat jo daiteke. Literaturazko dibagaziotzat. Dibagazio psikologiko-literariotzat akaso. Baina, esan dezagun gehiago praktikatzen duela autopsikologia, pertsonaiei aplikaturiko psikologia baino.

Liburua hasi baino lehen, poesia-liburu bat zelako ideia neukan. Eta aurreneko paragrafoek arreta erakarri bazidaten ere (prosaz idatzita zeudelako), “poesiatzat” jo nituen une batez (lasai, une batez soilik, eta aurreneko bizpahiru paragrafoak baino ez).

Berehala ohartu nintzen oker nengoela. Hala eta guztiz ere, liburuak –nahiko sailkagaitza berau– asko zor dio poesiari: giroa, egileak liburuarekiko hartzen duen jarrera, bere intimismo maila (izugarri) altua... Horrek guztiorrek poesiara hurbiltzen du irakurlea, nahiz eta poesia ez izan –dena den, gauza jakina da egileak poesiarekiko duen jaidura.

Irakurketan zehar batek susmoa du egileak ez ote dituen “gauza gehiegi” kontatzen. Hori *ona* eta *txarra* da. Ona da, berez jarrera “zintzoa” eta eraginkorra delako, egilearen (edo liburuko pertsonaiaren) mundua “den bezala” erakusten duelako; eta txarra da, norbaitek zintzotasun hori gaizki erabil dezakeelako. Gehiago gertatzen da hori maila pertsonal batean beste ezein mailatan baino, nahiz eta liburuaren bukaeran, egileak berak (edo liburuko protagonistak berak) –arrisku horretaz jakitun– zalantzan jartzen duen egitateen benetakotasuna, hau da, obran zehar kontatzen diren gertaerak benetakoak zein gezurrezkoak izan daitezkeela ohartarazten digu. Eta hori ere egia da: baliteke den-dena fikzio hutsa izatea. Agian sortu duen fikzioa hain sinesgarria da, ezen, denoi iruditu baitzaigu kontakizun autobiografiko baten aurrean geundela (horrek baluke meritua); edota, Miren Meabek berak –gutxi gorabehera– esaten digunez: errealitatea adierazten zenbat eta gehiago saiatu, orduan eta gehiago eskapatzen zaigu errealitate hori, adierazi nahi genuen errealitatearen isla bat besterik ez izan arte. Hala ere, ohartarazpen hori azken orduko babes-mekanismo baten ondorioa ere izan daiteke.

Une batzuetan (liburuko atal guztietan kasik), irakurlea egilearen edo liburuko protagonistaren buru-osasunaren beldur da. Hemen ere egin daiteke gogoetatxo bat: gertaerak kontatzen dituen hirugarren pertsonaiarik ez daukan liburu bat –eta liburuak berez hain intimista izanik, oso gertaera gutxi ditu– benetan jo al daiteke eleberrizat? Gertaerak egiazkoak nahiz gezurrezkoak izan, ez al litzateke berez autobiografikotzat jo behar? Bestalde, autobiografia bat benetako edo gezurrezkoa izan daiteke; baina gezurrezkoa izateak ez du kontakizun bihurtuko, edo behintzat, ez du eleberri bihurtuko. Berrito ere, lehen aipatu dudana: pixka bat sailkatzen gaitza den genero baten aurrean gaudela.

Kontakizuna ihesalditzat ere jo daiteke, baina batez ere zentzu pertsonal, barnekoi (berekoi?) eta intimo batean esanda. Ateak ireki eta ixtea ikusteko zer dagoen, ea zer dagoen ate horren atzean, ea zer gertatzen den irekitzen badut, eta berriro ixten badut, eta irekita itxiz gero, eta orain beste ate hauek itxita edota irekita uzten baditut... Ia-ia

diban batean etzatea eta bakarriketa batekin hastea bezala da... Den-denak balio du. Burutik pasa dakizukeen edozer bota dezakezu. Hobeto esanda, burutik pasatuko zaizun guztia bota behar duzu... Hitz-nahasketa horretan, hitz-pila horretan egia bereizi beharko duzu. Eta egia ximplea bezain sofistikatua –eta ziur aski, bezain utopikoa– da, zera esaten entzuten duzun arte: “Beitu, irakurleok, ni hauxe naiz”.

Baina ariketa arriskutsua ere bada. Hain zuzen, irakurketan zehar pixka bat sufritzen duzu pentsatuz egilea jolasean ari dela berez arriskutsua izan daitekeen jolas batera. Hark berak asmatutako amildegi baten ertzetik ibiliko balitz bezala... Alde horretatik, literaturgile, artista eta olerkarien biografiak nahiko “bitxiak” izan ohi direla gogoratu behar da, eta zenbaitetan, baita tragikoak ere (Panero, Virginia Wolf, Alejandra Pizarnik, Rimbaud eta Verlaine...). Antzerti-mundua, buhameria, betiko gaztetasuna... Idatzizko hitzak botere handia du. Fakirraren kobra bezalakoa da: nor hipnotizatzen du nor? Eta kontuz, gero: bat-batean kobrak jauzi egin eta kosk egingo dizu...

Beste atal batean, egileak edo liburuko protagonistak bere gaztaro goiztiarrari lotutako “feminismo gaizki ulertu” bat aipatzen du, eta pentsatzen dut akaso zenbait gehiegikeriatan erori zela esan nahi zuela, baina hark berak dioskunez, hori guztia jada “gaindituta dago”. Nik, ordea, ez dakit zenbateraino ote den egia. Adibidez (eta adibide bat baino ez da), protagonistak etxetik alde egiten du bere 14 urteko semea bere kasa utzita, eta itzultzen denean (beste erremediorik izan ez duelako, zeren liburuko protagonistaren aita aguretu, matxista eta berekoiari bururatu baitzaio istripu bat izatea), eta orduan bere 14 urteko semeari kontatzen hasten zaionean non ibili den eta non ezkutatu den ez dakit zenbat astetan, besteak hitza moztu eta hitz hauekin egiten dio ongietorria: “Lasai, ama, ez da ezer gertatzen”. Bueno, ba nik beste ideia (ziur aski objektiboago) bat daukat nerabeei buruz eta gurasoen eta seme-alaben arteko harremanei buruz eta batzuen eta besteen erantzukizunei buruz. Egia esateko, liburuko pertsonaia ia bakarra askotan iruditu zait berekoi hutsa zela (bere zilborrari begira bizi diren horietakoa baina bere berekoikeria tapatzeko erabat zilegi den gizarte-mugimendu batez baliatzen dena).

Euskararen ikuspuntutik, liburuaren irakurketa oso atsegina da. Euskara jatorra erabiltzeaz gain, garbi dago hizkuntza eskularru bat bezain ondo egokitzen zaiola egileari, haren larru-azala bera da, eta egilearen garapen intelektual eta emozionalaren parte dela ez dago dudarik. Lexiko zehatza darabil, askotan arreta erakartzeraino, eta ezezagunak zitzaizkidan hitz bakan batzuen esangura hiztegian begiratzeko nekea hartu ez banuen ere, ziur nago kasu guztietan benetako lexiko bat, lexiko jator bat topatuko nukeela –euskalkietan oinarrituriko (des)bariazio arrunt, eskas eta ximpleak ez, baizik eta lexiko huts, zehatz eta aberats bat.

Azkenik, egilea zoriontzea, Bilboko Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkartearen sariagatik edo ohorezko aipamenagatik. Dena den, kontuz ibili beharra dago fariseuen lausengu, laudorio eta losintxeekin...